

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

INFOGRAFIA ZIENTIFIKOA ETA DATUEN-BISTARATZEA (1. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2024/2025

ARLOA: Arteak eta Humanitateak

KREDITUAK: 4 ECTS(*) kreditu

MATRIKULA TASA: 307,1€ (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Maren Ortiz Zarragoitia

AURKEZPENA

Ikastaro honek infografia zientifikoko prestakuntza integrala eskaintzen du, teoria eta praktika uztartuz datu eta kontzeptu konplexuak modu visual, erakargarri eta zorrotzean komunikatzeko. Parte-hartzaileek grafiko eskematikoak eta datuen bistaratzeak diseinatzeko ikasiko dute, teknika digitalak eta analogikoak aplikatuz.

ZURE BILA GABILTZA

Zientzia eta komunikazio bisuala uztartzen dituen prestakuntza paregabe baten bila zabilta? Ikasi munduko infografia zientifikoko aditu onenetako batzuekin eta hobetu ezazu ezagutza bisualaren adierazpenean dituzun trebetasunak. Zure profila honakoa bada, ikastaro hau zuretzat da:

- Infografia zientifikoa espezializatu nahi duzu.
- Zientzia, artea, osasuna edo komunikazioaren arloan lan egiten duzu.
- Dibulgazioa edo ikerketa irudi argi eta erakargarrien bidez hobetu nahi duzu.

Ikasi onenetatik eta eraman zure talentua hurrengo mailara. Zure zain gaude!

IRTEERA PROFESIONALAK

Infografia: Zientzia Komunikatzeko Giltzarri Infografia tresna funtsezkoa da zientziaren komunikazioan, informazio konplexua grafiko argi eta erakargarrietan bihurtzeko aukera ematen duelako. Bere aplikazioa funtsezkoa da dibulgazioan, ikerketan eta hezkuntzan, eta hainbat esparrutan aukera profesional ugari eskaintzen ditu:

1. Dibulgazioa eta Zientzia Komunikazioa

- Infografiak sortzea aldizkari zientifikoetarako, komunikabideetarako eta plataforma digitaletarako.
- Material bisuala diseinatzea museotarako, zientzia-zentroetarako eta erakusketa interaktiboetarako.
- Dibulgatzaileekin elkarlanean aritzea, aurkikuntzak eta teoriak modu ulergarrian azaltzeko.

2. Datuen Bisualizazioa Ikerketan

- Datu zientifikoak grafiko informatibo eta modelo bisual ulergarri bihurtzea.
- Eskemak eta diagramak prestatzea artikulatu eta argitalpen zientifikoetarako.
- Ikerketa-taldeei laguntzea emaitzak eta prozesuak grafikoki irudikatzeke.

3. Hezkuntza eta Material Didaktikoa

- Ilustrazioak eta eskemak diseinatzea testu-liburu etarako, online ikastaro etarako eta aurkezpen akademiko etarako.
- Material didaktiko interaktiboak sortzea, ikasle eta irakasle entzako diziplina zientifiko ezberdinetan.
- Eduki bisualak garatzea e-learning plataform etarako eta hezkuntza-aplikazio etarako.

4. Infografia Osasun eta Biomedikuntzaren Sektorean

- Grafiko azalgarriak egitea medikuntzaren eta farmazia-dibulgazioaren arloan.
- Eskema anatomikoak, prozesu biologikoak eta patologia irudikatzea.
- Infografiak sortzea ospitale, klinika eta osasun-kanpain etarako.

5. Diseinua eta Komunikazioa: Aplikazio Orokorrak Infografiaren erabilera ez da soilik zientziaren esparrura mugatzen; tresna indartsua da beste sektore batzuetan ere:

- Komunikabideak: Infografistak egunkari, aldizkari eta berri-agentzietan.
- Marketina eta publizitatea: Marka, sare sozial eta estrategia komertzialetarako grafiko azalgarriak sortzea.
- Ekoizpen audiobisuala: Motiongraphics eta animazio informatibo en garapena.

BALDINTZAK

Derrigorrezkoa da Lizentziatura edo Gradu bat izatea. Ilustrazio zientifikoa arlo anitzetan aplikatzen den diziplina transbertsala denez, programa hau hainbat profil profesionalentzat dago zabalik. Hala ere, lehentasuna izango dute honako esparru hauetako formazioa duten hautagaiek:

- Zientzia eta Teknologia
- Arte eta Diseinua
- Komunikazioa eta Informazioaren Bisualizazioa
- Osasun Zientziak.

Horrez gain, ezinbestekoa da ,honako gaitasun hauek izatea:

- Ilustrazio digitaleko softwarearen ezagutza, bai ingurune matrizialean (raster) bai bektorialean
- Marrazketa oinarri sendoa, elementu zientifiko eta naturalak zehaztasunez irudikatzeko gai izateko.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2025/06/16tik 2025/06/27ra

EMATEKO TOKIA: Presentziala

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Zientzia eta Teknologia Fakultatea

HELBIDEA: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Sarriena z/g. 48940 Leioa

TELEFONOA: 94 601 3548

POSTA ELEKTRONIKOA: ilustracioncientifica.fct@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.